

Iparragirrenen Kantak (II)

Esan bezala, era askotakoak dira Iparragirrenen kantak, aberkioiak, buhame ibilerazkoak, amoriozkoak, eta abar. Ardo kantetan aski zabaldua da gure egunok arte herriak kantatu duen "Glu, glu, glu..." Kronika aldetik ere badu baluagarririk, besteak beste, "Euskalerra eta Amerika" deritzana. Seme leial batek bezala kantatu zuen bere Urretxu sorterriaren alde. Baina, euskaltzale mailan ere badu bertso ederrik.

Euskara maite zuen eta hizkuntzan honen alde ari zirenak goraitzen zituen. Hara nola Aizkibel "Biba Euskara!" deritzan bertsoetan:

Pakean bitziteko gure mendietan, euskera hiz egin bear da batzarre danetan; ta euskaldunen izena geroko eunkietan farnatua izango da alde guztietan.

Zoritzarrez, ehun urte geroago, abertzaleen batzarrik gehienetan erdara mintzo dira. Ibon Sarasolak ongi zion bezala, euskaldunok, gauzarik garrantzitsuena gerorako uzten bat dugu. Gero ordea, ez dakit mila-groz salbatzeko esperantza edo duten; baina, gaur egun, norik sinesten du milagroz? Mirakulorik baldin bada, hori gure baitan dago, euskaldunei euskaraz mintzatuz. Ia zein aspaldikoa den Iparragirrenen "Arren, ez bedi galdu euskara" deitzen den bertso saila, hizkuntzaren euskarri. Ohartua zen gure urretxuarra hiz-

kuntza gabe ez genuela herriarik, "galtzen badegu"... galduek gara", kartuski azalduz.

Gasteixo ibili zen lehen Karlisten gerran. Bergarako kometioaz ez zetorren ados eta bere kabuz aitzerratu zen. Frontizan hasi zen kantari eta Marsellesa kantatuz herriak asaldaten zituelako desterratu izan zen, Italia, Suiza, Alemania eta Ingalaterran ibili zen buhame kantari. 1853an etorri zen Espainara eta Madrid-eko San Luls kafetegian kantatu zuen "Gernikako arbola", orain hain ezaguna eta hain hedatua duguna:

Gernikako arbola da bedeinkatua, euskaldunen artean gertatzen maitatua. Eman da zabal zazu munduan frutua; adoratzan zaitzugu, arbola santua.

Geroztik esan daiteke euskaldunon kanta nagusia dela. Gainera, tendentziarik gehienekoa onaritzen dutenean, analiaunera biltzen baitu.

Geroago anitz eztabalduta da kanta hau beste norbaitek egina ote zen eta Iparragirrek kanta. Letraz eta bertso estiloz, nik neuk ez daukat dudarik berea ez denik. Bere beste kanta batzuetan agertzen diren klize, errejistro, era edo molde, hor daude garbi asko. Bestalde, erabiltzen duen euskara mota ere ber hura da. Must-karena, musikologoak aztertu beharko dute, baina "Ume eder bai" eta "Hara nun dira" egiteko gauza zenak ez dut ikusten "Gernikako ar-

bola"rena beste baten esku usteko arrazoirik.

"Gernikako arbola" Euskal Herrian zehar kantatzeari eman zionean, hemen bai asaldatzen zituela bazterrak. Horregatik, preso sartu zuten eta Tolosan epaitu ondorean deserritu izan zen. Hortik sortu zen beste kanta ezagun hura: **Zibillak esan dute, biziro egoki, Tolosan behar dela gauza hau erabaki; giltzapean sartu naute politikoki luke, negar egingo luke nere amak baleki.**

Gaztaroko kantok ditu bizienak, baina Ameriketarik itzulzean, bere etorreraz Hendalan kantatu zuena ere ez zen izan txarra:

Hara, nun diran mendai maiteak, hara, nun diran zelaiak, baserri eder zuri zuriak, iturri eta hibaiak. Hendaian noko zoraturikan, zabal zabalik begiak; hara, España, tur hoherikan ez da Europa guztian!

O ¡Euskal Herri, eder maitea, hara hemen zure semea, bere lurrai mui ematera beste gabe etorria. Zuregatikan emango nuke pozik bai nere bizi, bati zuretaz, hil arteraino, gorputz, ta arima guzia.

Nornahi harutako da naturaltasun handiz egindako bertsoak ditrela, eta diren bezala errespetaizea mercei du-

tela. Lehen bertsoan España kentzeko ohituru sartu da eta ez deritzago ondo egina, zeren gurai hariako politikak bere kontestu berezia zuen eta aldaketak ez dio onik egiten argitasunari. Norbaitek esango du, nik neuk ere ortografiak aldatu dudala, baina hau bere dator aldakor, harek eta euskara idatzi finakua bat tortu arte. Honegatik, gaur inork ez bai du idazten Iparragirre ber berak jarri zuen ortografiarekin. Baina, testu aldatzea beste gauza bat da. Oroi, Iparragirre, bere etorreran Bidasoako mugaren aurrez aurre agertu zela eta ibaiaren bestealde Estadua desberdin baiten lurraldeak zirela eta horren barne bere sortierren partea. Beraz, garai hartan, gauzarik naturalena zegoera hortan kantatzea.

Iparragirrek ordurako bazekien gauzak bereizten, gaurko askok baino hobeto. "Ley Paccionada" (1841) geroztik Nafarroa bereizten ari zen eta Gipuzkoako Batzar nagusia Antzuolan biltzen zelarik, hara Jose Mariak bidalitako bertsoak:

Esan, adiskideak, orduan bezala, Nafarroa-kin gaur ere anakik gerala; bat da gure izarra, bat gure bandera; esan beti Laurak bat izan nahi degula.

Juan SAN MARTIN

Agurain, Errege-hiria

Agurainen egon naiz gaur. Aspalditik ez nintzen bere kaleetan zehar paseatzen eta arratsaldeko ibilaldiak iragan urtekoan irudatik ekarri ditzkit gogora. Erdi ahazturik gordetzen nituen bazter eta txokoko, pil-pil jarri zaituzk berriro aurrean neuzkanean.

Eta baita orduko pertsonarik ere bizirik nituela irudi zait.

Gazeo utzi dut atzean eta Agurainera hurbiltzen ari naitzela garai hartako irudia datorkit: bide hustea, alde bietan makalen itzal luzea dagerrelarik. "Puente del Alivio" izenekoan nere aitona ikus dezaket, erretelak jartzen ari delarik. Gaur karramarorik izango dugun afaltzeko.

Herriko sarreran den aldapa gainditu ondoren, Agurain azaltzen zait, mino apal baten gainean luzexka.

Eta bidetik, eskuan zorro zahar bat dokarrelarik, Makaria aisoa dator usteriegirantz. Txabola hau du aterpe, ijito eta eskaleak lagun. Nor da? Noiztik usteriegirantz? Inork sekulan erantzun ez ditzkan galderak. Behar bada, 1564an Agurainen izandako izurriaren azkenengo aztarren bat eukiko genuen eraikitua hura. Aipatutako urtean izurriak gogor jo zuen herri honetan. Seirehun biztanle baino gehiago hil zen, populazioaren 40%, Agurain zeharo ahulduta geldituz zelarik. Kutsadurari aurre egiteko profilaxis "aurrerakoi" bat jarri zen praktikan eta harek zioenez, gaixo guztiok herriak apropos geru-riko usteriegirantz berrogei egun eman behar zuten. Denboraldi honetan basora irien zitezkeen, bideetatik urrutiratuta, eta makil zuri bat eraman behar zuten eskuan gaixoak, ikusten zuenak izurriak jota zegoela jakin zesan. profilaxis-ak markatzen zituen arauak ez baziren betetzen haulesa hiltzera zigortatzen zen.

Portal del Rey-ko atetik sartzen naiz hiri-barnera. San Juan eliza aurrean daukat, aintzina harrerietako zati garrantzitsu bat delarik. Santa

Maria dugun beste eliza, hura baino zaharragoa, eta batekik bestera darabaina kale nagusiaren inguruan kaxkoka hedatu da.

San Juan-eko atarian Don Bafazio erretoarek zenbait emakumeren solasaldian dihardu. Aurreko arkupeetan "Txole"ren harategia dakuska eta Kale Nagusiari hasiera emanen Petra-ren dendak. Aurrekaldean koartela eta Emilio-ren drogadena. Ezin ahaztu, bestalde, boteroarena.

Atari, atari, sorbaldatik larriuko kartera zintzilik daramalarik, Amando postaria. Santa Mariaraino iño naiz harlanduzko kaletik. Eskuinean dagerkit eraikitua zoragarria, San Juan bezala, hamairugarren mendearen Alfontso Xgnak jasoa. Biak Urrietako harri zuriz eginda. Eta eliz urreko lanadatik La Nevera mendixka aazaltzen zait, gailurrean ur-gordailuz hornitua. Gordailuaren aurrekaldeak giza-aurpegiaren itxura duela eman dit beti, leihoak begi eta atea sudurtzat harturik.

Nik "Loriñe"tik bizi izan nuen Agurain lasaiaren, ez arduragabe, zerizelada batzu ditugu hawek. Agurainek, Gaztela eta Gipuzkoa arteko harremanetan beharrezko gogotki, gorabehera handiak izan ditu bere historiar zehar. Arabako historiaz batera joan da hazten Aguraingoa, probintziak izan zuen bigarren errege-hiria, lehenengoa Gasteiz, Agurain izan baitzen.

1143.an Egilazko "alfoz"ean, beste hamabost toki-izenekin batera, Agurain aipatzen da, baina ez da 1256.ko Urtrarraren 23.arte hiri bezala sortzen dela, Gaztelako Alfontso X.gnak emandako agiriari esker. Bertan irakur daiteke: "Por grande sabor que he de hacer bien é merced a todos los pobladores de la mi pueblo que yo fiz e puse nombre Salvatierra, que ante habia nombre Hagurain".

Hiria sortzean Gasteizko Forua ematen dio erregeak Aguraini, ez bere osotasunean baina bai nahikoa Agu-

rainek erregeen mesedeak hasieratik izan zituela esateko heldurrik izan gabe. Irakur dezagun: "... doles y otorgoles que hayan fuero de Vitoria en todas cosas asi como los de Vitoria lo han, et doles y otorgoles todas las franquexias que han los de Vitoria, sacando ende moneda que dieran a mi e a todos los que Reinaren despues de mi en Castiella y en Leon". Hain zuzen ere, azkenengo esueran daitza Gasteizkoarekin duen desberdintasuna, Arabako hiruburuak Fernando III.gnak 1.219.an emandako dekretu bati esker ez batzuzen dirutan zergarik ordaindu behar. Bestalde, Aguraini astearteetan jarri zitzaion azoka-eguna eta hiriko elizen patronatuak Erregeak berak bereganatzen zituen.

Urteetan zehar hazten joango den errege-hiri honek zenbait hauzi sorterraten du lurralde hartan, bere indar ekonomikoari esker inguruetako zaldunei 30 herrixka erosi ahal izan baitzuten, eta bere lurraldea sortetzekoa

zen. Hauziari 1332.an eman zitzaion irtenbidea Arabako zaldunek probintzia osoa erregari ematen diotenean. Josemari VELEZ DE MENDIZABAL

Agurain, que ya aparece citado en el "alfoz" de Egulaz en 1143, se convierte en villa real el 23 de enero de 1256, merced al fuero concedido por el rey castellano Alfonso X el Sabio, quien cambio el nombre de aquel pequeño nucleo de poblacion por el de Salvatierra. Era el fuero concedido a la nueva villa, similar al que ya gozaba Vitoria, aunque recortado en algun punto como es el concerniente al pago de moneda. Se que estaba exento esta ultima. Se disponia que el dia de mercado fuera el martes y era el rey mismo quien se reservaba el derecho del patronazgo de las iglesias locales.

San Juan y Santa Maria son las iglesias, que, situadas a ambos extremos de Salvatierra, servian de fortificación dentro del cerco que suponian las murallas. Alrededor de la

LA ENERGIA: UN RETO PARA EUZKADI.

Para profundizar en la realidad de la política energética en el País Vasco, hay que abandonar algunas ideas preconcebidas y analizar las diferentes opciones existentes de forma objetiva. Este estudio, que forma parte del programa de trabajo del COE, se presenta ahora al público por iniciativa del COE, en el cual, en vez de limitarse a emplear los datos estadísticos, se abordan las tareas de gestión y administración, haciendo de este un instrumento de información más importante.

En el trabajo realizado por el COE se pretende examinar objetivamente la situación existente (analizando su evolución y sus perspectivas) y, a la vez, proponer medidas que permitan mejorarla, poniendo especial énfasis en los aspectos de gestión y administración.

Un libro que nos interesa a todos.

¡USTED LO ENCONTRARA EN LAS PRINCIPALES LIBRERIAS!

Departamento de Energía y Minas
Servicio General de Información
Departamento de Planificación
GOBIERNO VASCO